



## MUGAEZIN

Ikastola guztiok batera, guztiok batuta. **Arabako zortzi ikastolak elkarrekin ariko gara aurten ere** Araba Euskaraz antolatzen. Azken bi ekitaldietan martxan jarri dugun ereduari jarraipena emango diogu, auzolana eta elkarlana ardatz hartuta, eskuz esku, buruz buru, gure jakintza elkarbanatuz, gure harremana aberastuz. Eta azken bi urteotan bezala, **Olarizun ospatuko dugu datorren urtean ere, Araba Euskaraz, 2024ko ekainaren 16an.**

Zortzi ikastoletan sortu ditugu batzordeak eta lanak banatu ditugu: material salmenta, Tanta txartelen salmenta, babesle-laguntzaileen eta publizitatearen bilaketa, segurtasun aurreikuspen lanak, urte osoko ekimenen antolaketa, eguneko egitarauaren taxuketa, muntaketa lanen aurreikuspena,... Lan asko dira elkarlanean kudeatu beharrekoak. Lan horiek guztiak, bistan da, samurrago egiten dira ikastola guztiok batuta, eta denon artean koordinatuta.

### Urte osoko Araba Euskaraz

Araba Euskaraz eguna ekainaren 16an ospatuko dugun arren, egiazki **Araba Euskaraz urteaz** mintzatu beharko ginateke. Izan ere, Araba Euskaraz gure lurraldeko bazter guztietara eramango dugu aurten ere, eskualde bakoitzean urtean zehar antolatuko ditugun ekimen desberdinen bitartez. Urte osoko lana aurreikusten dugu, beraz, eta Araba Euskaraz eguna urte osoari bukaera ematen dion jai eguna izango da.

Ikastola guztion artean egingo dugun auzolan honi esker, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu. Baina, era berean, **euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaini nahi diegu**. Ikastolek bezalaxe, euskarak behar duelako Araba Euskaraz bozgorailua; euskal kulturak behar duelako Araba Euskaraz agertokia; eta arabarrok ere behar dugulako Araba Euskaraz topagunea.

**Guztion lana, guztion konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko.** Guztion lana eta esfortzua, ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko. Urte honetako Araba Euskaraz antolaketarekin **Oiongo San Bizente ikastola** lagundu nahi dugu. San Bizente ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen



erabilpena aldarrikatzeko eta bultzatzeko, eta erabilpen eremuak zabaltzeko baliatuko dugu gure jaia.

### **Leloa eta logotipoa**

**Mugaezin;** horrela, mugagabea, dugu 2024ko Araba Euskaraz leloa. Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza. Mugarik gabe, ez bada ortzi-muga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagok irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat.

Hegomendebaldeko bazterretik ari gara, bazter-herritik, euskarazko hatsa igorri erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarriz gurera.

Gure gogo, borondatea eta grina ere mugaezinak dira. Duela berrogeita hamar urte, guraso, irakasle eta ikasle aitzindariak abiatutako ikastola mugimendua guztiz errotuta dago Arabar Errioxan. Urteotan guztian lortu dugu eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea. Eta gure gogo, borondate eta grina mugaezinarekin lortuko dugu Arabar Errioxa euskalduna, Euskal Herri euskaldun.

**Su** planetak eta **Gar** izarrak erakusten digute bidea, Lurretik 26 argi-urtera. Euskara unibertsala baita!

**Logotipoa** infinituaren ideian inspiratuta dago eta Arabako lurraldeko zortzi ikastolen arteko lankidetzaren sinbolizatzen du.

Diseinu honen funtsezko elementuak hauek dira:

**Forma nagusia:** logotipoak betikotasuna eta etengabeko mugimendua adierazten duen forma espirala aurkezten du, etengabeko bidaiaren eta denboraren jarioaren ideia gogora ekarriz.

**Ekilore-petalok:** espirala harmoniatsu konbinatzen da espirala inguratzen duten zortzi petaloez. Petalo horietako bakoitzak Arabako zortzi ikastoletako bat irudikatzen du. Petalok hazkundearen, aniztasunaren eta lankidetzaren sinbolo dira, elkarrekin osotasun harmoniatsua eta bateratua osatzen baitute.

**Kolore horia:** logotipoan nagusi den kolorea horia da, ekilorearen ezaugarria dena. Kolore honek argia, energia eta bizitasuna sinbolizatzen ditu. Gainera, ekilorea Arabako



paisaiaren landare enblematiko bat da, eta komunitatearekin eta lurraldearekin lotura berezia ezartzen du.

### **Urteko ekitaldiak prestatzen**

Ekainetik hona lanean aritu gara, Araba Euskaraz urtea diseinatu asmoz, eta dagoeneko zirriborratu dugu urtean zehar egingo dugun eskaintza. Halere, oraindik datak jartzea falta zaigu, eta zenbait ekitaldiren behin betiko diseinua amaitzea ere. Horregatik, gaur ez dizkizuegu aurreratuko urte osorako egin dugun plangintza. Aurreratuko dizuegu, hori bai, iaz bezala hainbat ekimen izango direla Arabako lurralde osoan, iaz bezala, aurten ere Araba Euskaraz lurralde osora hedatu nahi dugulako, eta Araba Euskaraz eguna izango da urte osoari amaiera emateko jaia.



## SAN BIZENTE IKASTOLA

1976. urtean sortua, ia mende erdi bat ari da San Bizente ikastola Oionen errotuta lanean. 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, eta uneotan 201 familiak, 288 ikaslek, 34 irakasle eta langilek osatutako komunitatea da ikastolarena. Funtsezko bi oinarrik ematen diote San Bizente Ikastolari berezko nortasuna. Alde batetik, Kooperatiba da, gurasoek antolatua, beren seme alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatezkoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, kalitatezko zerbitzua eskaintzea da ikastolaren xedea. Bi ezaugarri horiek ematen diote San Bizente Ikastolari bere berezko nortasuna: Ikastetxe euskalduna, integratzailea, akonfesionala, hezkidetzagilea da, eta metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituen Oiongo eta inguruko familia guztientzat. Izan ere, inguruko herrietatik ere jasotzen ditu ikasleak, bai eta Errioxara bizitzera joandako zenbait familiaren seme-alabak eta zenbait ikasle nafar ere.

San Bizente ikastolak harreman estua dauka Arabako beste zazpi ikastolekin, baina berezki, Arabar Errioxako beste bi ikastolekin, Bastida eta Assarekin. Hiruen artean lortu dute lau-bost hamarkadatan eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea.

2024ko Araba Euskarazekin, lehenik eta behin, San Bizente Ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera eman nahi dugu. Horrekin batera Arabar Errioxan Ikastolok euskararen alde egiten dugun lana ikusarazi nahi dugu: Arabar Errioxako neska mutikoak euskalduntzen ditugu, eta, horiekin batera, baita hainbat nafar, errioxar eta urrunagotik etorri berriak ere. Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzea eta bultzatzea, eta erabilpen eremuak zabaltzea ere bada gure xedeetako bat. Eta, noski, Ikastola proiektuari jarraipena emateko finantzazioa lortzea.



## MUGAEZIN

Todas las ikastolas juntas, todas unidas. Las ocho ikastolas alavesas volveremos a estar juntas organizando el Araba Euskaraz. En esta edición daremos continuidad al modelo que pusimos en marcha hace dos años, centrado en el auzolan y el trabajo en común, mano a mano, compartiendo nuestro conocimiento nuestro saber hacer, enriqueciendo nuestra relación. **Será el próximo 16 de junio de 2024, en Olarizu.**

Hemos creado comisiones y distribuido los trabajos entre las ocho ikastolas: venta de material, venta de tarjetas Tanta, búsqueda de patrocinadores y colaboradores y publicidad, previsión de seguridad, organización de iniciativas a lo largo de todo el año, diseño del programa del día, previsión de trabajos de montaje, ... Son muchos los trabajos que hay que gestionar de forma colaborativa. Todos estos trabajos, evidentemente, se hacen más llevaderos con la unión de todas las ikastolas, y coordinadas entre todas.

### **Un Araba Euskaraz de todo el año**

Aunque el día del Araba Euskaraz lo celebraremos el 16 de junio, siguiendo el camino iniciado en las dos ediciones anteriores, damos comienzo, hoy, el año del Araba Euskaraz. Es decir, un año más llevaremos el Araba Euskaraz a todos los rincones de nuestro territorio, a través de las diferentes actividades que organizaremos a lo largo del año en cada comarca. Por lo tanto, prevemos un trabajo de todo el año, y el día de Araba Euskaraz será un día festivo que pondrá fin a todo este año.

Gracias a este auzolan que haremos las ikastolas conjuntamente, queremos dar a conocer e impulsar los proyectos de las ikastolas. Pero también queremos ofrecer un gran escenario al euskera y a la cultura vasca. Ya que al igual que las ikastolas, el euskera necesita el altavoz del Araba Euskaraz; porque la cultura vasca necesita el escenario del Araba Euskaraz; porque los alaveses también necesitamos el punto de encuentro del Araba Euskaraz.

El trabajo de todos, el compromiso de todos, con el movimiento de las ikastolas, con Araba, con el euskera y con la cultura vasca. Trabajo y esfuerzo de todos para sacar



adelante los proyectos de las ikastolas. La recaudación que consigamos en el Araba Euskaraz de 2024 lo destinaremos a ayudar a la ikastola San Bizente de Oion. Al tiempo que daremos a conocer el proyecto educativo de la ikastola San Bizente, aprovecharemos nuestra fiesta para reivindicar e impulsar el uso del euskera en Oion y en La Rioja Alavesa, y ampliar los espacios de uso del euskara.

### **Lema y logotipo**

**Mugaezin**, ilimitable es el lema elegido para esta edición; ilimitable, sin límites. Porque representamos nuestra lengua de esta forma, sin límites. Sin límites, si no es el horizonte, de hito en hito, abriendo espacios más amplios para el euskera. Sin límites para todos aquellos que quieran formarse y crecer en euskera.

Hablamos desde la orilla sudoeste, desde la periferia, enviando un aire fresco en euskera hacia el centro. Pero también estamos en el centro y provocamos una fuerza centrípeta, atrayendo también a alumnos y familias de Nafarroa o de Rioja, así como a los recién llegados a nuestro país.

Nuestro ánimo, nuestra voluntad y nuestra pasión son también ilimitables. El movimiento de ikastolas iniciado hace medio siglo por padres, profesores y alumnos pioneros está totalmente arraigado en Rioja Alavesa. En todos estos años hemos conseguido que los euskaldunes y casi euskaldunes de esta cuadrilla hayan pasado de ser un 4% a superar el 40%. Y con nuestro ánimo, voluntad y pasión ilimitables conseguiremos una Rioja Alavesa euskaldún, en una Euskal Herria euskaldún.

El planeta **Su** y la estrella **Gar** nos muestran el camino, a 26 años luz de la Tierra. ¡Porque el euskera es universal!

**El logotipo** está inspirado en la idea del infinito y simboliza la colaboración entre las ocho ikastolas del territorio alavés.

Los elementos fundamentales de este diseño son:

**Forma principal:** El logotipo presenta una forma espiral que expresa la eternidad y el movimiento continuo, evocando la idea del viaje continuo y del flujo del tiempo.

**Pétalos de girasol:** la espiral se combina armoniosamente con los ocho pétalos que rodean la espiral. Cada uno de estos pétalos representa una de las ocho ikastolas alavesas. Los pétalos son símbolo de crecimiento, diversidad y colaboración, ya que juntos constituyen un todo armonioso y unitario.



**Color amarillo:** el color predominante en el logotipo es el amarillo, característico del girasol. Este color simboliza luz, energía y vitalidad. Además, el girasol es una planta emblemática del paisaje alavés que establece un vínculo especial con la comunidad y el territorio.

### **Nos ponemos en marcha**

Desde finales de junio hemos estado trabajando para diseñar el año de Araba Euskaraz y ya hemos esbozado la oferta que haremos a lo largo del año. Sin embargo, aún nos falta poner fechas y terminar el diseño definitivo de algunos eventos. Por eso, hoy no os vamos a adelantar la planificación que hemos hecho para todo el año. Os adelantamos, eso sí, que al igual que el año pasado habrá varias iniciativas en todo el territorio alavés, al igual que el año pasado, porque un año más queremos extender el Araba Euskaraz a todo el territorio, y el día Araba Euskaraz será la fiesta de cierre de todo el año.



## **SAN BIZENTE IKASTOLA**

Fundada en 1976, la ikastola San Bizente lleva casi medio siglo arraigada en Oion. Se trata de una comunidad educativa formada por 201 familias, 288 alumnos, 34 profesores y trabajadores. Dos pilares fundamentales dan identidad propia a la Ikastola San Bizente. Por un lado, es Cooperativa, organizada por los padres, para ofrecer a sus hijos una educación euskaldún y de calidad a través de una gestión democrática y transparente. Por otro lado, el objetivo de la ikastola es ofrecer un servicio de calidad. Estas dos características son las que dan a la Ikastola San Bizente su propia identidad: Es un centro euskaldún, integrador, aconfesional, coeducativo, que ofrece una metodología participativa y de gestión abierta a todas las familias de Oion y alrededores. De hecho, también recibe alumnos de localidades cercanas, hijos de varias familias desplazadas a vivir a La Rioja y algunos alumnos navarros.

La ikastola San Bizente mantiene una estrecha relación con las otras siete ikastolas alavesas, pero de forma específica con las otras dos ikastolas de Rioja Alavesa, Bastida y Assa. Entre las tres han conseguido que los euskaldunes y casi euskaldunes en esta cuadrilla hayan pasado de ser un 4% a ser un 40% en cinco décadas.

Con el Araba Euskaraz de 2024 queremos, en primer lugar, dar a conocer el proyecto educativo de la Ikastola San Bizente. Junto a ello, queremos visibilizar el trabajo que las Ikastolas hacemos a favor del euskera en Rioja Alavesa. Reivindicar e impulsar el uso del euskera en la Rioja Alavesa y ampliar los espacios de uso son otros de nuestros objetivos. Y, por supuesto, conseguir financiación para dar continuidad al proyecto de la ikastola en Oion.